

## PIZTIA HITZA ETA ABAR

Donostia, 1991-IX-27

Zatarain'darr Anbrosi

Andoain'en egindako bileretako batean honako hau esan nuen: beste hizkuntzetatik hartutako hitzak bukaeran *-ia* letrak dituztenean, euskaraz azkenengo *-a* hori bereizte-atzizkitzat (artikulutzat) jotzen dugula, eta hitz soila *-i* letraz bukatu erabiltzen dugula: Filosofi-zalea da, geografi puska bat badaki, pameli ederra du, Espaini'ra joan da, Itali'tik etorri da, Praintzi 'ko tren-bideak, Alemani'ko garagardoak, eta horrelako asko ta asko.

Erantzuna bereala entzun nuen: "Hori Gipuzkoa'n bakarrik egiten da".

Bilera hartan bertan edo hurrengoan, eztaikit, beste hau esan nuen: piztu = biztu = bizitu, pizkor = bizkor = bizikor hitzak gogoratuz gero, *bizi* hitza *pizi* hitza berbera dela sinets daitekeela, hasierako letra alkar-koia durunda-hots bihurturik sortua, eta *lotsati*, *gezurti*, *loti* hitzen antzera *pizti* hitzak *bizidun* adierazten duela.

Honentzat ere erantzuna bat-batean entzun nuen: "Piztia" hitza latinezko *bestia* berbera da." Iritzi hori lehenago Arantzatzu'n Aita Vil(l)asante'ri entzuna nuen, baina ez nion sinistu, eta orain ere ez tut sinisten. Alde batetik latinezko hitza B letraz hasten delarik euskeraz P letraz oguztea harrigarri egiten zait, horrelako bat bakarrik ere ezpaitzait gogoratzen. Alderantziz gertatzea bai, arauzkoa da: *pake* ta *bake*, *parkatu* ta *barkatu* hitzetan bezala. *Bestia* hitzaren *e* letra *i* bihurtzea ere etzait oso sinisterraz egiten.

Baina *bestia* hitzaren azkeneko *-a* letra galtzea nik lehenago aipatutako gertaera berbera da, beraz esan zidatenez giputzok bakarrik egiten duguna. Azkue'k *piztia* (B, G) alimaña; var. de *pisti*, *pistia* dio. Lhande-Lafitte'k: *pizti* (G.H.) *être vivant*, *animal* dio. *Bezti* eta *Bizti* inon ere ez tira ageri.

Sota-Lafitte-Akesolo hiztegiak honako hau dio: *Pisti* (AN-goiz, B-l-m-mu,... Gc,...), *pistia* (B, G): Bicho, alimaña. "Isillik egon ari, isillik,

lotsagarri eta pisti gaisto ori: calla, vergonzoso y mal bicho” (*Pach*, 24-11). “Leoyak eta beste pistia guztiak: los leones y todas las demás alimañas” (*Ag. Eracus*, 289. “Hortxe dagoz lurean pisti ta zomorroak”. Erkiaga, *Batetik bestera*, 197. “Eliz-egazti, eta pistia mueta askotakoak dira Gipuzkoan”. Iztueta, *Kondaira*, 196. “Eztute esaten abere ta pistien artean muxarra dala lotiena?” T. Agirre, *Uztaro*, 30.

Azkue’k beste bat aipatzen du: “Piztia (B, G) alimaña, bicho: fauve, carnassier Var. de pisti, pistia”. Ondo dakie au piztia zital onek dagozan geletan lo egiten dabenak: bien saben esto los que duermen en lugares habitados por estos impertinentes bichos: ceux qui “dorment dans les lieux habités par ces impertinents animaux connaissent bien ceci”. (*Per. Ab.* 179-23) Oker ezpanago, Mogel’ek zorri ardi ta tximitxak aipatzen ditu. Azkue’k *fauve* (animales salvajes, fieras) eta *carnassier* (carnicero, carnívoro) dio; arkakuso, zorri eta tximitzentzat gehitxo esatea ez ote da? Hortaz konturaturik noski, *animaux* dio, beraz nik diodana berbera: bizidunak.

Berriro Sota-Lafitte-Akesolo hiztegia: *Pizti* (*a*), (B, G) Alimaña, bicho. *Peru Abarka* aipatu ondoren, beste hauek ematen dizkigu: “Pizti gaizto batek nere semetxoa jan dit”. Lardizabal, *Test.*, 49. “Gizona gizonarekiko dan baño pizti gaiztoagorik ba al-dek iñun?”. T. Agirre, *Uztaro*, 88. “Arei pizti lotsabakuai mendu oneko ixaten irakastiaz ondo egin dau”. Otxolua, *Bertolda*, 143. “Zu zera basoko piztia guziak baño gogorragoa”. Agirre, *Erakus*, IV, 124. *Piztikeria*: Bestialidad. “Gerla-gosea eta piztikeria zokoraztuz dijoaz”. Villasante, *Kristau*, 181. “Arrazoimenak nahi luke agindu, baiña piztikeriak bere aldetik tiratzen du”. I. Id., 120. *Piztizar*: Animal enorme, animalazo. “Dinoterio eta beste olako piztitzarrak orain eztira”. Villasante, *Kristau*, 61.

Ikusten denez, *piztia* bere *a* eta guzti idatzi zutenak bi giputz eta bestea Eibar’en jaioa, baina bere lehenengo liburua gipuzkeraz idatzi zuen bat dira. Eta Vil(l)asante berberak ere, nahiz eta *pizti* hitza *bestia* hitzaren aldakuntza dela uste duen arren, *piztiakeria* eta *piztiatzarrak* idatzi beharrean, *piztikeria* eta *piztitzarrak* idatzi zituen *a* “organikoa” kendurik, edo ta *a* hori bereizte-atzikitzat harturik eta kendurik.

Orain beste hitz edo izen-sail bat aipatuko dut: emakume-izenena. Gaztelaniaz *ia* bukaera dutenak guk (gipuzok bakarrik?) -i bukaera hutsaz erabili ohi ditugu: Andra Mari, Ana-Mari, Anttoni, Baxili, Gregori, Iñaxi, Kontxexi, Kandelari, Lutxi, Eulali, Joxepantoni, Joxepiñaxi, Manttoni eta abar. *Haize-Garbia* hiztegiak honako hauek ematen dizkigu: Ana-Mari, Aureli, Baleri, Engrazi, Estebeni, Garaxi, Lidi, Graxi, Manazi (Mañazi?), Maribattit, Mari-Dominika, Mari-Gazte, Marihandi, Mari-Kattalin, Mari-Santz (“Mari-Santzen lasterra / Bost-Mendietan behera”), Maritxu, Mari-xuma, Mayi, Melani, Orel(i) (Aureli), Ottabi, Roxali, Tuti, Ulali, Xexili,

Zidoni. Horietatik bakan batzu giputzoï ikasiak izan daitezke, baina gehienak ez.

\* \* \*

Hitz gutxitan esateko: Zeratan gelditzen da harako *-ia* bukaerako A “organikoa” giputzok bakarrik kentzen dugunekoa? *Pizti* hitza latinezko (edo gaztelaniazko) *bestia* hitzaren aldakuntza dela sinisterazteko, neri gogoratzen etzaidan arrazoinen bat behar da. Beste hitz bat aipatzeko, Azkuek ez-taman *pameli*, *pamili* edo *famili* ikus dezagun. Sota-Lafitte-Akesolo hiztegiari: “Familia. Gure famelixan...” Etxebarria, *Lex. Arrate*, 291. “Fameliadun. famelixaduna”, Etxebarria, *Lex. Arrate*, 281. “Famili(a): Ona emen Nazaretoko etxe zuria, bertan sendi edo famili santu bat”, Kerexeta, *Meza*, 66. Hau ere ezta gipuzkerazko idazlea.

Hona berriz Corominas'en hiztegiak zer dioten:

“Bicho, 1578, de Běstius “animal”, forma del latín vulgar en lugar de la clásica Bestia; el castellano tomó *bicho* del gallego portugués, donde se halla desde el S. XIII, lo cual explica la evolución fonética del vocablo. *Bicha*, 1573, sale paralelamente de Běstia...”

Eta Europako arratsalde-herriek ditxosozko “a” “organiko”ekin nola jokutzen dute? Lehen aipatu ditudan hiru hitzak miratuko ditugu:

F: famille, géographie, philosophie. GB: family, geography, philosophy; D: Familie Geographie, Philosophie. NL: familie, geografie = aardrijkskunde, filosofie = filozofie = wijsbegeerte. DK N: famili, geografi, filosofi. S: familj, geografi, filosofi. Agi denean, guretzat “organikoa” den hori’ beste hizkuntza horientzat “pilarmonikoa” da. Guk bakarrik dugu “organistero” izan beharra.